

Abonatu ez direnek eguneko sarrera erosi ahal izango dute Tabirako igerilekuetan

**Abonatu gabekoez www.durangokirolak.net
webgunetik egin beharko dute erreserba, egunean
egunekoa, goizeko 9:00etatik aurrera.**

Gaur hasita Durangoko udako igerilekuetan eguneko sarrera erosteko aukera izango dute abonua ez zeukaten durangarrek. Horretarako, aldezturik hitzordua eskatu beharko dute <https://www.durangokirolak.net/> webaren bitartez. Prezioa 4 eurokoa izango da, eta ordainketa txartelarekin web orrian bertan egin ahal izango da.

Gainera, erreserba egunean bertan egin ahal izango da goizeko 9:00etatik aurrera. Modu horretara, abonatuak lehentasuna izango dute aurreko egunetik erreserba egiteko.

“Ezohiko urte honetara ahalik eta modu eraginkorrean egokitzen ari gara Durangon ere. Gauzak horrela, udako igerilekuak beste herri batzuetan baino lehen irekitzeko aukera izan genuen, eta orain beste pauso bat eman dugu. Gaur egungo egoerak sorrarazi dituen eragozpen guztiak bada ere, durangarrentzat aisialdi eskaintza duin bat egiten saiatu gara”, adierazi dute udal ordezkariak.

